

BILBO HONDAKIN ORGANIKOEN BILKETAKO ALDAKETETARA EGOKITU DA

- Bizkaiko Foru Aldundiak materia organikoa tratatzeko sistema aldatu ondoren, gaurtik aurrera edukiontzi marroira bota daitezke okela, hestebete, arrain eta itsaskien hondakin kozinatuak edo gordinak, hezurak, gazta eta arrautza-hondarrak, beste batzuen artean.

- Nobedadeen berri emateaz gain, Bilboko Udalak hondakin organikoen birziklatzearekin bat egiteko deia egin die herritarrei.

- Urtarrilaren 31n, 30.253 pertsona daude hondakin organikoen birziklatzearekin bat eginda.

(*Bilbon, 2021eko martxoaren 1ean*). - **Bilbo hondakin organikoen bilketako aldaketetara egokitu da**, Bizkaiko Foru Aldundiak materia organikoa tratatzeko sistema aldatu ondoren. Horiek horrela, **gaur, martxoak 1, hasita**, herritarrek, besteak beste, okela eta arrain gordinen hondarrak bota ahal izango dituzte edukiontzi marroian.

Nobedade horien berri emateko, informazio-kanpaina bat egingo du Bilboko Udalak. Kanpaina horren helburua da materia organikoaren bilketara atxikita dauden pertsonengana iristea (posta elektronikoz edo testu-mezuaren bidez), baina baita materia organikoa birziklatzearekin bat egiten ari direnengana ere (informazio zehatza sartuko da organikoaren birziklatze-kitetan bertan), eta bihar-etzi batuko direnengana.

Era berean, edukiontzi marroiaren inguruko berrikuntzak nerabeen sentsibilizazio-kanpaina ere sartu dira. Kanpaina hori urtero egiten du Udalak, Ecovidrio eta Ecoembesekin batera. Aurtengo edizioa, bosgarrena, otsailaren 1ean hasi zen eta martxoaren 31ra arte egingo dira prestakuntza-saioak. 16 eta 18 urte bitarteko 1.800 ikasle baino gehiagorengana iritsiko dira saio horiek.

Zehatz esateko, gaurtik aurrera, hauek bota ahal izango dira edukiontzi marroira:

- Animalia-hondakin kozinatuak edo gordinak (okela-, hestebete-, arrain- eta itsaski-hondakinak, arrautza-hondakinak eta beren azalak, hezurak eta gazta).
- Landare-hondakin kozinatuak edo gordinak (fruta-hondakinak, barazkiak, lekaleak, ortuariak, pasta eta arrozak, haziak).
- Lore- eta landare-hondakinak, baratze-hondakinak, belarra eta inausketa-hondakinak.
- Kafe-hondarrak eta -iragazkiak, infusio-poltsak, ogi-hondakinak, galletak eta opilak, fruitu lehorrak eta beren azalak, fruta-hezurak eta kortxo naturaleko tapoiak.
- Sukaldeko papera, paperezko ezpainzapiak eta mahai-zapiak, kartoizko arrautzontziak eta uhin-kartoi zikina (guztiak materia organikoarekin bustiak).
- Broxeta eta bestelako elikagaietarako makilak, izozkien makilak eta antzekoak.
- Txikoria, algak, alpistea, karameluak eta gozokiak, zerealak, irina, marmelada.

- Poltsa, ontzi eta tresna konpostagarriak.

Ezin dira bota edukiontzi marroira:

- Erraztatutako hautsa.
- Zigarrokinak eta hautsontzietako hondakinak.
- Errautsak.
- Animalien gorozkiak.
- Katuen hondarrak.
- Lorontzietako lurra eta turba.
- Olio edo beste edozein likido, jatorria gorabehera.
- Pixoihalak, konpresak eta tanpoiak.

GAI ORGANIKOA GURE ZABOR POLTSAN

Gure zabor poltsa aztertuta, zaborren % 40 inguru gai organikoa da. Gai organikoa birziklatu egin daiteke konposta egiteko Tratamendu Mekaniko Biologikoko (TMB) instalazioan.

Une honetan, **Bilbon 1.379 edukiontzi marroi daude; eta, aipatu behar da iaz 3.119.706 kilo materia organiko bildu zela urian.**

Datu osoak dituen azken hilabetea, urtarrila, aztertuz gero, 299.820 kilo hondakin organiko bildu ziren hirian, hau da, 2020an baino % 2,28 gehiago – 293.140 kilo bildu ziren –.

Portzentaje handiagoan handitu da materia organikoa birziklatzen duten familien kopurua. Urtarrilaren 31n, **30.253 familia zeuden materia organikoaren birziklapenari atxikita**; 2020ko urtarrilaren 28an, ordea, 28.199 familia; hau da, % 7,28ko hazkundera egon da.

Informazio gehiago:

Telefonoa: 900456888

kaixorganikoa.bilbao.eus

www.kaixorganikoa.com